


Julio-Gabriel Ospin-URKIXO Ibarra Goikoetxea Aranbarri Deustuan jaio zen 1871.eko apirilaren 3an. Bost nebarreba ziren, Adolfo-Gabriel, Luisa-Maria, Rafaela, Fernando, Julio-Gabriel eta Jose-Maria, hiru lehenak eta azkena Bilbon jaioak eta beste biak orduan elizatea zen Deustuan, Gabriel-Maria Ibarra (1814-1890) aitona 1869an eraikitako «La Cava» izeneko etxean. Gurasoak Nikasio-Adolfo Ospin-Urkixo Goikoetxea (1839-1895) eta Maria Rosario Ibarra Aranbarri (1846-1875), Bilboko Santiago Basilikan ezkondu ziren 1865.eko abuztuaren 27an eta Bilbon lehen seme-alaba nagusiak jaio ondoren, aipatu etxe berrira aldatu zuten egoitza, non jaio zen gure Julio Urkixo. Bi ziren izatez «La Cava» izeneko etxeak, biak 1869an eraikiak, bata oraindik sortu gabe zegoen unibertsitatearen ondoan kokatua, non amaren ahizpa, Rafaela Ibarra (1843-1900) Elizak 1984ean beata izendatu zuena eta honen senarra zen Jose Vilallonga Gipulo (1822-1898) bizi izan ziren, eta bestea, ondoan baina Bilbotik hurbilago zegoena, Julioren jaiotetxea hain zuzen.

Egia esan, Julio de Urquijo izenarekin ezagutua dugu gure idazle eta ikerlea, hala sinatzen baitzituen erdaraz emandako ia lan guztiak. Garcia de Diego jaunak esaten digunez, «Urquijo» euskal deitura ez zela aitortu omen zuen Juliok, Schuchardt eta Uhlenbeck

JULIO URKIXO (1871-1950).



hizkuntzalariek jatorri germanikoa zuela inoiz adierazi baitzioten. Baina Aiara araneko deitura zela argi diosku Garcia Salazar historialariak *Bienandanzas y Fortuna* liburuan eta Urkixok berak ere grafia honekin sinatu zituen euskaraz idatzitako lan urriak, Euskal-Esnalea aldizkarian, behintzat. «Urki» errotik datorkigu deitura hau, Urkizu, Urkiza, Urkidi, Urkiola eta abar bezala «-xo» hizkia gehituz. Erdal-lanetan Urquijo onartzen bada ere, euskaraz Urkixo idatzi behar delakoan nago.

Haurtzaroa. Lehen ikasketak

Gurasoen familiak Bilboko hoberenatarikoak ziren. Urkixotarrak, edo hobeto esateko, Ospin-

DEUSTUAN «LA CAVA» ETXEA

Julio Urkixo Deustuan jaio zen (1871), Bilbok hura bereganatu aurretik (1924). Gerora Unibertsitatea eraikiko zen orubeen ondoan zuten Urkixotarrek etxea: «La Cava». Bizkaiko industrigintza modernoan esku zuzena izan zuen Urkixo-Ibarra familia dirudun karlistak.



Urkixotarrak, aspaldidanik leinuz nobleak ziren, Bilbon eta Madrileko Gortean kargu publikoak izan zituztenak, legegizonak eta tituludunak. Nikasio-Adolfo Urkixo, aita, abokatua zen eta Gorteetan Diputatua. Adolfo-Gabriel Urkixo (1866-1933), Julioren anaia nagusia, eta hau bezala abokatua zen, eta mendearen hasieran Bizkaiko Diputazioaren Burua, Londresen 1869an jaiotako Antonia-Maria Martinez Lejarza andrearekin ezkondua, nondik zetorkion gure Juliori nolabaiteko anglofilia eta ingelesekiko harremana, baita hara bidaiak egiteko erraztasuna. Ibarretarrek industria eta merkatal munduan ziharduten, Bilboko Erribera kalean bulegoak zituztelarik. Gabriel-Maria Ibarra, Julioren aitona, Juan-Maria haren anaiak eta Jose Vilallonga osabak sortu zituzten, esate baterako, Bizkaiko Labe Garaiak. Beraz, familia aristokrata eta eginkorren magalean jaio zen Julio Urkixo, eta gainera, alde bietatik, karlista giroan.

Horregatik, azken karlistada 1873an hasi zenean, Santander aldera jo behar izan zuten Urkixo eta Ibarretarrek, «La Cava» etxe biak karlisten buruzagigoaren erabilerarako utziz. Juliok lau urte zituelarik hil zitzaion ama Santanderren 1875.eko urtarrilaren 8an. Aurrerantzean, gero beata izango zen izeko Rafaelaren

babespean geratu ziren Urkixo-Ibarra haurrak. Karlistada 1876an amaitu zenean, «La Cava» etxeak hondatuta zeudenez, Erribera kaleko etxebizitzetara etorri ziren Urkixo-Ibarra eta Vilallonga-Ibarra familiakoak, «tiita» deitzen zuten Rafaela Ibarrak zaindu zuelarik Julio eta neba-arreben haurtzaroa. Bitartean Deustuko bi etxeak konpondu zituzten eta 1878.eko maiatzean hara aldatu ziren bi familiak, bertan bizi izan zirelarik 1890 urterarte.

Bilboko Institutuan hasi zituen Julio Urkixok ikasketak 1882 urtearen inguruan. Bi izango ziren betirako gogoan izango zituen irakasleak, euskararekiko interesa Juliorengan

sortu baitzuten: Roman Biel, 1882an «El habla vulgar de Vizcaya» eta «Más sobre el habla vulgar de Vizcaya» artikuluak kaleratu zituen, eta Tomás Escriche Mieg, «El Vascuence» eta «Algunas palabras más sobre el vascuence» ikerlanak *Revista de Vizcaya* zelakoan 1886an argitaratu zituen. Baina hazia ereinda bazegoen ere, fruitu nagusiak ateratzeko ildo nagusia zabaldu ziona Resurreccion Maria Azkue izan zen, 1888an meza berria eman eta Institutuko euskal katedra irabazi

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Urkixoren prestakuntza Deustuko Unibertsitateari oso lotua ageri zaigu, bere lehen goi-ikasketetan: kasik ataritik atarira ibiliz egin ahal izan zituen lehenengo ikastaroak.





HIZKUNTZALARITZA MODERNOA
Hizkuntzalaritzaren zientzia gureratzea zaila gertatu zen: hizkuntzalari atzerritarrekin batera, batez ere Urkixok bete zuen lan hori gurean. Argazkian: Hizkuntza indoeuroparrei buruzko Saussure-ren lan bat, 1879.

ondoren «La Cava»n bizi ziren familien kaperau izendatua izan baitzen. Dena den, Institutuan zebilen garaian, izeko Rafaelaren eraginez, frantsesa ere ikasi zuen, familiak harako joera ere bazuen eta. Maria-Rosario Aranbarri amona, esate baterako, Parisen hil zitzaion 1883an. Gero, 1916an, idatziko zion Lacombe Broussaini: «Urkixo zinez frantsesazalea iruditzen zait».

Deustuko Unibertsitatean

Julio Urkixo Bilboko Institutuan ikasle zelarik, «La Cava» etxean ezker aldean hasi ziren 1883an Deustuko Unibertsitatearen eraikitze lanak. Aitonaren anaia zen Juan-Maria Ibarra

eta Jose Vilallonga, izeko Rafaelaren senarra zeuden sortzaileen artean. Lehen ikasturtea 1886.eko irailaren 25ean hasi zen, hiru zirelarik hasierako fakultateak: Filosofia eta Letrak, Zuzenbidea eta Ikasketa Bereziatarako Prestakuntza. Hurrengo ikasturtean, hots, 1887-1888, «La Cava» bizilekutik hurbil zeukan Zuzenbide Fakultatean matrikulatu zen Julio Urkixo 16 urteko gaztea. Lau urte geroago Bilboko Huertas de la Villa kalera aldatu zen familia eta hamar minutuko osterara egin beharko zuen azken ikasturtean.

Bigarren ikasturtea hasiera zihoanean, 1888-1889, grekozko klaseak ematera etorri zen Filosofia eta Letren Fakultatera Julio Cejador Frauca, josulagun gaztea (1864-1927) eta Institutuko garaian erne zitzaion hizkuntzalaritzarekiko interesagatik edo, zuzenbide ikasketa ofizialetatik aparte, Cejador-en klaseetara joateko izena eman zuen Urkixok. Baina laster konturatu zen haren irakaspenen ahuleziaz. Eta beste hutsune bat ere nabaritu zuen gure Urkixok Deustuko Unibertsitatean, hala aitortzen digu eta. «Garai hartan hizkuntzalaritzako liburuak urri zeuden Deustuko liburutegian, eta erbesteko argitaratzaileei eskatzen nizkien nik neuk Cejador irakasleak ikusi nahi zituen gramatika konparatuak (Bopp, Diez, etab.) eta hiztegiak; baina

zegokion bezala ikertu beharrean, berak zituen argudioak bakarrik bilatzen zituen eskaintako liburuetan». Eskertzarreko ikaslea izan zela bota zion behin Cejador-ek Urkixori, baina, egia esan, European ordurako aurreratua zegoen hizkuntzen zientzia beste bide batetik zihoala ikusten zuen Urkixok eta laster baztertu zituen josulagunaren fantasiak. Paradisuko etimologoen azkenetariko katemaila zela Cejador esango digu gero Urkixok, eta Uhlenbeck hizkuntzalariak Juliori esango zionez (1908) *Astarloa redivivus* bat. Baina Urkixok berak ere egin zituen gaztaroko bekatuak. Institutuan irakasle izan zuen Escrichek volapük hizkuntza asmatuaz ikerketetan jarraituz, Schleyer apezak sortutako hizkuntza honi liburu bat eskaini zion 1889an: *Konils volapükik...*, Leipzigen argitaratua, 18 urterekin Urkixok kaleratu zuen lehen liburua.

Zuzenbide ikasketak ondo burutu zituen eta lizentziadun titulua lortzeko unibertsitate ofizial batera jo behar zuenez, esaminak Salamancakoan egin ondoren atera zuen 1892an Zuzenbide Zibilean eta Kanonikoan diploma. Urte berean lizentziatu ziren beste 22 Deustuko ikasle, tartean Jose J. Olazabal eta Ramon Olazabal anaiak, Donibane-Lohizunekoak, laster familiakoak izango zituenak.

Hauen bitartez ezagutu zuen Bizenta Olazabal Alvarez de Eulate, zeinekin ezkondu zen Donibane-Lohizunen 1894.eko irailaren 15ean, bertan bizi izan zelarik hogeitertan zehar, 1914ean Munduko Gerra hasi arte. Urkixoren ideia politikoekin ados zetorren familia zen emaztearena, karlista sutsua hain zuzen, Tirso Olazabal-Arbelaiz Lardizabal (1842-1921) eragilearen alaba baitzen. Urkixoren aitagarreba honi Arbelaiz Konde titulua eman zion Karlos VII.ak eta suhiak ere Urkixo Konde titulua lortu zuen, harreman estuak izan baitzituen errege karlista horrekin. Esate baterako, 1909an Egiptotik itzulian Karlos VII.arekin zetorrela, eta atsotitzen bila zebilela jakin zuenean erregeak, Hernan Nuñez-en *Refranes o Proverbios en Romance* (1578) liburua

NAZIOARTEKO
HIZKUNTZA
ARTIFIZIALA?
Nazioarteko
harremanetarako
hizkuntza amankomun
baten beharra Urkixok
ere sentitu zuen. Garaiko
giroaren lekukoa da bere
Konils Volapükik liburua
(1889. Ezin izan dugu
alerik aurkitu). «Volapük»
hizkuntza artifizia
1880an J.M. Schleyer-ek
sortu zuen. Arrakastarik
ere izan zuen beronek,
esperantoak (1887an
asmatua) baztertu zuen
arte.



oparizat eman zion Venezian, Alkairon eskainitakoa. Karlista zen ba Urkixo, baina eginkizun guztietan eta denekin izan zituen harremanetan liberala eta eskuzabala.

Urkixo xenofiloa

Gure hizkuntzalarien artean xenofiloena Urkixo izan zela esan zuen behin Fausto Arozenak, baina ez «kanpo eder, etxe kalte» atsoitzak adierazten digun eran, euskal

P. P. ASTARLOA (1752-1806)

XVI-XIX. mendeetan euskarari buruz esan eta zabaldukoez gutxi lagundu zuten hizkuntzalaritza berriaren bideak gure artean zabaltzen. Astarloa izan genuen ohizko iritzi haien azken autore sonatuena. Urkixok oso gaztetatik bestelako bideak hartu zituen.




kulturaren eta bereziki euskararen onerako gure mugetatik kanpo egiten ziren ikerketak, bere ustetan, egokiagoak zirelako baizik. Mitxelenak esaten duenez, nahiz eta politika arazoetan atzerakoia izan, hizkuntzalaritza izan dugun gizonik kritikoena da Urkixo jauna. Aspaldidanik hasiak zituen hizkuntzaren ikerketetan bidegurutze batetan zegoela konturatu zen Urkixo: alde batetik bertoko tradizioa, euskararen antzinatasun eta unibertsaltasunarekin harro sentitzen zena, eta beste aldetik kanpoko ikerlariak zekarkiguten bide berria, hots, euskara beraren eta euskalkien azterketa zientifikoa, hizkuntzalaritzak emandako urrats berrien arabera. Argi

MITXELENA/MARTINET (1980)

Euskalaritza zientifikoak bere hegada librean gora egiteko izan duen eragozpenetako bat, nazioarteko jakitate modernoekin elkarriketarik ezin egina izan du. Urkixoren ondoko belaunek bete-betean asmatu dute metodologia berrietara iristen, baita Urkixoren bide-urratzeari esker ere. Argazkian: Mitxelena, Martinet hizkuntzalari maisu frantsesarekin elkarriketan.





RIEV/RIEB (1907-1936) Aldizkari honek ekarpen zientifikorik emankorrena egin zion euskalaritza berriari, erbesteko lankidego zabala bere orrietara erakarriz eta Euskal Herriko lumarik onenak bertan bilduz. Hogeitamar urtetako bititza izan zuen.

ikusten zuen Urkixok kontrajarriak zeudela Humboldt versus Astarloa, Lècluse versus Iztueta edo Bonaparte versus Xaho.

Revue de Linguistique et Philologie comparée 1867an sortu zenez, Europako hizkuntzalaritza nondik zihoan ikusteko aukera izan zuen han Urkixok eta euskararen ikerketetarako xenofilo bihurtu zen, nahi eta nahi ez. Julien Vinsonekin 1905ean harremanetan hasi zenean, gaizki esaka ari zitzaion Cejador beronen eskola utzi eta beste bide bat hartu zuelako. Eraso hauen kontrako zaurtezintasunagatik zorionak ematen zizkion Azkuek, zeini azaltzen zion Urkixok Schuchardt eta Uhlenbeck-en teoriak hobesten zituela.

Garaikideen artean Eleizalderekin izan zituen eztabaida suttsuenak 1910. urtearen inguruan, euskal pontizenak zirela eta. «Garbizale berri hauek - esaten zion Schuchardt (1910.4.21)- inork ulertuko ez duen hizkuntzan mintzatuko dira laster». Eleizalde deitura erabili beharrean «Txadonalde» erabiltzea gaztigatzen zion. Dena den, gazteen artean prestaera hobereana Eleizaldek zeukala aitortzen zion Grazko irakasleari bi akats aipatuz: begien aurrean Arana-Goirik jarritako benda zeukala eta «aranisten» lanak politikak gidatzen zituela. Baina gorrotorik handiena ematen ziona zera zen: haurtzarotik euskaldunak izanik, liburuak erdaraz idazteak. Urkixo bera

H. SCHUCHARDT (1842-1927) Graz-eko irakasle sonatuak harreman hertsia izan zituen Urkixo-rekin. RIEV/ RIEB sortu eta gidatzean biziki preziatuak izan ziren Urkixorentzat hizkuntzalari honen aholkuak.



euskaldun berria zen, eta Azkuek esaten zuenez, nahiz eta ondo idazteko gai izan ez, euskara mintzatua eta idatzia ulertzen zuen eta aztertu eta ikertu ere.

Ingelesa eta frantsesa ondo zekizkiela esan da. Alemana Webster jaunaren alaba batekin ikasi zuen eta 1912an Schuchardten *Baskische Studien* itzulia zeukan. Vinsonek eta Azkuek ez zituztela Schuchardten lanak behar den bezala aztertu esaten zuen Urkixok, eta ezinbestekoa ikusten zuen honen eta beste Europako hizkuntzalarien lanak ezagutzea. Horregatik bi alderdi zituen Urkixoren xenofiliak: hemengoek

erbestekoen ikerketak aztertu behar zituztela eta mundu guztiko hizkuntzalariak gure hizkuntzaren problemak aztertzerako erakarri behar zirela. Zilari begira egon beharrean, leihoak mundura zabaldu behar genituela; hori zen Urkixoren xenofiliaren oinarria.


Eusko Ikerkuntzen nazioarteko Aldizkaria (RIEV)

Hau izan zen Urkixok zabaldu zuen leihoa, etxe barneko kikiria garbitzeko eta kanpotik zetorren hozkirriarekin euskal ikerkuntzen giroa aireztatzeko. Argi eta garbi ikusten zuen —diosku Haritschelharrek— agerkari horren bitartez oldar berri batek bultzatuko zituela ikerlariak, bakoitzak bere jakituria eskainiz eta besteengandik beti zerbait ikasiz. Bi helburu zituen nagusi aldizkari berri honek Urkixoren asmoetan: Ikerketa berriak bultzatzea, baldintza bakar batekin, hots, lanen kalitatea hertsiro zainduko zela, eta ikerkuntzarako beharrezkoak ziren testu klasikoak, gehienetan aurkitzeko zailak, ikerlariari eskaintzea.



ETXEBERRIREN ESKUIZKIBUA (1905)
Urkixok euskal kulturari egindako ekarpenik aberatsenetakoa gure klasikoak berreskuratzearena izan zen. Guztien gainetik, ordea, Etxeberri Sarakoaren obra aurkitzea izan zen handiena (Zarauzko frantziskotarren komentuan, 1905).

ETXEBERRIREN EDIZIOA (1907) Lan, diru eta ahaleginik onenak jarri zituen Urkixok, ordurarte galduta egondako Etxeberri Sarakoaren obra hau (1712) lehenengoz argitara emateko.



Revue Internationale d'Etudes Basques izan zen Urkixok agerkari honi eman zion titulua, Vinsonen artikulua batekin zabaldua 1907an. Hugo Schuchardti 1906an idatzitako gutun batean ematen zion asmoaren berri eta poz handia ematen ziola erantzun zion alemanak 1906.eko abuztuaren 19ko gutunean. Aholku bat ematen zion, hots, Alemanian atera zen *Euskara* (1886-1896) aldizkariaren antzekoa ez zuela ikusi nahi. Kenka batean sortu zen aldizkaria 1907-1908 urteetan Karlos VII.arekin ibili baitzen Urkixo, Italia, Suitza eta Egiptorako bidaietan. Schuchardt-ekin bildu zen Urkixo Vienan 1907.eko maiatzaren 27an eta RIEV-en lehen alea kaleratua zela

adierazi zion. Egiptotik 1908.eko martxoan Donibane-Lohizunera itzuli zenean, kanpotik zebilelarik Georges Lacombek egindako lana eskertu beharrean aurkitu zen Urkixo, aldizkariaren idazkaria izan baitzen hasieratik euskalari hau (1879-1947). Baina geroztik izan zituzten Urkixok eta Lacombek eztabaida eta haserre gogorak, esate baterako aldizkariaren tituluaz, Lacombek *Revue Bascologique* hobesten zuen eta. Moldiztegiekin ere izan zituen problemak: inprimaketaren itxura, frogen zuzenketak, kaleratzeko epeak, eta abar. Lanen kalitatea eskatzen zuen Urkixok, eta argitarapenarena ere zaindu behar zela uste zuen. Horregatik 1907-1909 urteetan Baionako Lamaignèrek gaizki ateratzen zuelako 1910-1912 urteetan Maconeko Protat Frères etxeari agindu zion inprimaketa. Epeak betetzen ez zituelako, Schuchardt-en aholkuz, Alemaniako Hallen Ehrhardt Karras-ek inprimatu zuen aldizkaria 1917 arte. Gero Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zenetik, Donostian inprimatu zen RIEV aldizkaria, lan honetaz Martin Mena y Cia. eta 1922.etik aurrera Gipuzkoako Diputazioaren moldiztegia arduratu zirelarik. Urkixoren aldizkari hau —bere jabegokoa zela aipatzen zion Schuchardti 1912an— 1936an desagertu zen, eta «ez berez hila» Mitxelenak esan zuenez.

Aipaturiko lehen helburua ondo baino hobeto burutu zuen Urkixok, kanpoko euskalari hauen ikerlanak argitaratuz: Alford, Bähr, Bonaparte, Bosch Gimpera, Bouda, Charencey, Dodgson, Eys, Faddegon, Farinelli, Giese, Herelle, Humboldt, Jullian, Meyer-Lübke, Rohlf, Schuchardt, Schulten, Schurhammer, Spitzer, Uhlenbeck, Veyrin, Vinson, Winkler eta beste. Euskal Herriko idazle eta ikerleen zerrenda luzea ematen digu aldizkariak. Bigarren helburua euskal klasikoak agertzea zen, eta honako hauek eman zizkigun: Añibarro, Axular, Basterretxea, Xaho, Etxepare,

URKIXO-BAITA


Urkixok lanik handiena Hegoaldean egin bazuen ere, 1914eko Gerrate Handia lehertu zen arte Donibane-Lohizunen bizi izan zen, hogeitaz urtez. Hora, Urkixoren egoitza donibandarra: Urkixo-Baita zuen izena.



Duvoisin, Etxeberri, Garibai, Hualde-Mayo, Oihenart, Peñaflores, Tartas, Zabala. Hainbat irudi, argazki, faksimile eta abarrekin apainduta zegoen agerkari hau, gure kulturak izan duen ikuslehorik hoberena izan dela esan dezakegu. Eta ikerketen mundu honetan ahaztu ezina da *Euskalerraren Alde* aldizkariaren sortzaile ere izan zela Urkixo 1911n.

Urkixoren ikerlanak

Beste hemengo eta erbesteko ikerlariei eginarazia asko izan bazen ere, ez zen laburra eta arina Urkixoren beraren lana. Azkue eta Arantzadi bezala -dio Mitxelenak- belaunaldi kritiko baten kidea da Urkixo, teknika berriekin oinarri sendagoen gainean euskal hizkuntzalaritza eraiki nahi duena. Ez zuen bere burua filologotzat hartzen, baina esaera horrek adierazten diguna zera da: besteen ikerlanak epaitu baino lehen, hozki nahi zuela berea kritikatu. René Lafonek (1899-1974) baieztatzen duenez, goitik beherako filologoa izatera iritsi zen Urkixo, beronen lanak eta besteen argitarapenei erantsitako hitzaurreek edo irazkin kritikoek hori adierazten baitigute. Euskaralogia zientifikoa Urkixok sortu zuela dio Justo Garatek.



11

URKIXOREN BEREKILA


Familia dirudunekoa izaki, garaiko aurrerapen eta erosotasunez ere baliatu izan zen Urkixo. Bere euskal lanetarako berebil hau erabili zuen. Gure aberatsetan, ondasunak hizkuntzaren alde eraldi zituen bakarretako izan zen Julio Urkixo.

Gaztedanik, ikusi dugunez, bibliofiloa izan zen eta laster heldu zen gure bibliografik handiena izatera, Vinsonen eraginez, behar bada. Euskal bibliografiaz argitaratu zituen lehen lanak 1905ean, aurkitzen zituen liburu zaharrekin baliatuz. Aipatu urte horretan hainbat ostera burutu zituen Euskal Herrian zehar eta Zarautzeko Frantziskotarren komentuan aurkitu zituen Joannes Etxeberri osagilearen

eskuizkribu ezezagutuak, hitzaurre biografiko eta ohar kritikoekin Parisen 1907an argitaratu zituenak. Hogeita hamasei urte zituen Urkixok orduan eta hara zer zioen Vinsonek liburua ikusi ondoren: «Saio-kolpeak ere lan maisuak bihurtzen dituenetakoa da Urkixo jauna. Osoa da, zehatza, metodikoa, argia, interesgarria,...» *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712),*

con una introducción y notas zen
Vinsonek goraipatzen zuen lana. Urte
berean, Vinsonek RIEV-en
argitaraturiko lehen lanari gehigarri gisa
Les études basques de 1901 à 1906
eman zigun Urkixok, hainbat aipamen
bibliografiko eginez.

Tarteka, *El Correo de Guipúzcoa*,
Euskal-Erria, *Notes and Queries*,
Revue de Linguistique, RIEV, eta beste
aldizkari batzutan euskal bibliografiaz
eta hizkuntzalaritzaz artikuluak agertzen
ziharduen. Eta nahiz eta arazo
politikoetan murgildurik ibili, ez zuen
alde batera uzten euskararen azterketa.
Karlos VII. arekin Egipton zegoelarik,
The Leizarragan verb y las
inexactitudes de M. E. S. Dodgson
argitaratu zuen Alkairon, 1908an. Beste
gogoko lan bat ere aztertu zuen urte
hauetan, atsotitzena: *Los refranes*
vascos de Sauguis traducidos y
anotados (1909) eta *Los refranes y*
sentencias de 1956. Estudio
comparativo (1911) Berrogei urte bete
zituen une honetan *Euskalerraren Alde*
aldizkariaren sortzaile eta eragile izan
zenetik, bertan eta *Euskal Esnalean*.
Hainbat artikulu eman zizkigun.
Miarritze-Baionan 1911.eko abuztuan
antolatua izan zen Historia eta
Arkeologiako IV. Biltzarrean hitzaldi bat
eman zuen, 1912an argitaratua: *Les*
études basques.



EUSKALARITZAREN
EGOERA (1918)
Eusko Pizkundeko
belaunaldia bere
heldutasunara Oñatiko
Biltzarrean iritsi zela
esan liteke. Harako
Urkixori eskatu zitzaion
euskararekiko
ikerikuntzaren egoeraren
berri orokorra ematea.

Euskalkiak aztertzeke eta liburu
zaharrak biltzeke, noski, bidaia luzea
egin zuen 1911.eko martxoan
bizkaieraren esparrutik. Gero, urte
bereko abuztuan eta irailean, herriz herri
ibili zen l'abbe Rousselot-ekin fonologia
azterketak egiten. Gai berau erabili zuen
1913.eko uztailean eta abuztuan Rudolf
Trebitsch Vienatik etorri zenean. Sara,
Ainhua (Lapurdi), Mungia, Markina
(Bizkaia) eta Orbaizta, Uztarroze,
Elizondo (Nafarroa) herrietara lagundu
zion, grabaketen transkribapenak
eginez. Abuztuko oporraldia Saint-
Sauveur, Gavarnie, Barbotan-les-
Thermes edo Cauterets-eko
bainuetxeetan egiten zuen.

Mundu-Gerra sortu zenean 1914ean utzi zuen Donibane-Lohizuneko Urkixobaita egoitza, Donostiara bizitzera etorri (Mendeurren Plaza, 1) eta hemen jarraitu zuen *El Pueblo Vasco* egunkarian eta *Bilboko La Gaceta del Norte*-n («La Maqueta del Norte» deitzen zion Schuchardt idatzitako gutun batetan) artikulua argitaratzen. Eusko Ikaskuntzak 1918an Oñatin eratu zuen I. Biltzarrean, *Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca* hitzaldia irakurri zuen irailaren 3an. Bilbon eman zuen beste hitzaldi bat 1919.eko apirilaren 19an: *Lengua internacional y lenguas nacionales. El 'euskera' lengua de civilización*. Eta urte berean jo zuen berriz hain gogoko zuen gaira: El refranero vasco. *Los refranes de Garibay* ikusiko dugunez, euskaltzain izendatua izan zen urte horretan.

JAKITUN EUSKALTZALEA

Urkixo euskaldunberria zen, eta ez zuen euskaraz hitz egiteko erraztasunik izan; baina hizkuntzaren ezagutzarik aitortuena izan zuen. Hemen, garaioko beste euskal jakitunekin ikusten dugu: K. Etxegarai, A. Kanpion, J. Urkixo, Tx. Agirre, S. Mujika eta J.K. Gerra.



Hainbat lan labor-luzetatik aparte, mamitsuenak diren hauek aipatuko ditugu: *La Crónica de Ibarгүйen Cachopin y el Canto de Lelo* (1922), *La Cruz de Sangre. El Cura Santa Cruz* (1928), *Los Amigos del País, según cartas y otros documentos inéditos del siglo XVIII* (1929), *De algunos problemas de interés general que suscita el euskera* (1929), Espainiako Erret Akademian irakurri zuen sarrera Hitzaldia, *Del teatro litúrgico en el País Vasco. La 'Passion Trobada' de Diego San Pedro, representada en Lesaca en 1566* (1931), *Introducción a nuestra edición del 'Linguae Vasconum Primitiae' de Bernard Dechepare* (1933), *Vascófilos ingleses* (1934) eta egilea hil ondoren argitaratu zen *De paremiología vasca. Oihenart conoció los 'Refranes y sentencias en vascuence' de 1596* (ASJU, 1967).

Baina idatzitako liburuen artean Urkixok gehien maite zuena honako hau zen: *Un juicio sujeto a revisión. Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia* (1925). Aspaldidanik zebilen gaia lantzen eta argitaratu baino urte bete lehenago, Zalduntxoan, Peñafloredako Kondearen eta RSBAP-en dokumentazio ezezagutua eta berak aurkitua ikertzen oso lanpeturik zebilela idazten zion Schuchardt 1924.eko irailaren 24ean. Liburua ateraberria zenean, 1925.eko abuztuaren 10ean

idazten dio Grazeko maisuari: «Espero ez nuen arrakasta izan du liburuak. Berehala agortu da egin nuen edizio laburra; bigarren bat egitea eskatzen didate baina ez dut halakorik egingo».

Urkixoren liburutegia

Orain gutxi dela, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak argitara emandako Katalogoaren bidez, jakin ahal izan dugu Urkixok bildu zuen altxorra: 7.549 liburu, 1.427 eskuizkribu, 273 aldizkari eta 1.268 beste eratako dokumentu: 10.822 guztira. Inor liburuzalea izan bada, Urkixo izan zen, setatia gainera, ehiztari bezala jarraitzen baitzuen liburu zaharren arrastoa. Abadia, Bonaparte, Vinson, Lacombe, Gerra eta besteren bat aipatu beharko genuke Urkixo hainakorik aipatzeko. Zorionez, Lacomberen liburutegia gure herrian geratu zen, Telesforo Monzonen etxean, Gerrarena Euskaltzaindiaren Azkue Bibilotekan eta Urkixorena Gipuzkoako Diputazioan.

Esanda dago gazte-gaztetatik hasi zela hizkuntzalaritzako liburuak erosten, Cejador-i uzteko ere bai. Hamazazpi urte zituelarik Bonaparteri eskatu zizkion printzeak berak argitaraturiko liburuak, eta eskale ezezagunari saldu ez zizkionak Londreseko Quaritch-enean erosi zituen Urkixok. Maggs-Bras, Rosenthal, Rasmussen,



«URKIXO» LIBURUTEGIA

J. Urkixok bildutako euskal liburutegia, itzela zen. Gaur egun oraindik -«Mitxelena» kuitur etxe berrira pasatu arte- Gipuzkoako Aldundiaren Jauregian dago, gela txukun batean bilduta.

Niemeyer, Gerilnhaus eta beste liburu-saltzaileei erositakoak lehendabizi Deustuan eta gero Donibane-Lohizuneko Urkixo-Baita etxean biltzen zituen. Baina gehien interesatzen zitzaizkionak euskal liburuak ziren eta hainbat aldiz zeharkatu zuen gure herria, etxerik etxe, baserriz baserri, apezak eta komentuek bisitatuz, galtzeko zorian zeuden liburuak biltzen edo estimatuak zituenak lortzen. Vinsonek esaten zuen bere Bibliografian *Guero*-ren lehen argitarapeneko sei ale ezagutzen zituela, bata Jose Manterolaren liburutegian zegoelarik. Bostehun pezeta eskaini zituen Urkixok aleagatik, baina liburutegi osoa saldu nahi zutela eta, dena erosi zuen 2.000 pezetatan.


Automobilean sartzen ziren guztiak hartu eta Urkixo-Baitara eraman zituen 1897an. Esan dezagun automobila eduki zuen lehenetarikoa izan zela Urkixo, eta neumatiko gabeko batekin heldu zela Lisboaraino.

Tolosako barrutitik Gorteetako Diputatua izatera iritsi zen, eta karlista alderdiaren hautagai 1903an izan zenean, botuak baino liburuak maiteago zituela esaten zuten. Mitin batetan lortu omen zuen Ochoa de Arin-en *Doctrina* eta kafe baten trukez *El borracho burlado* operaren libretoa. Azkue Tours-en hiztegia argitaratzen zegoelarik, eta Urkixo Parisera zihoala, bisita egin zion: Azkuek Materreren Bouqueta eman zion. Urte berean, 1905ean, Zarautzen aurkitu zituen Sarako Etxeberriren paperak. Hurrengo urtean, Gipuzkoa eta Nafarroatik bidaiaria luze bat egin zuen liburuen bila. Lazkaon Joannategiri bidaiaren helburua azaldu zionean, «dagoeneko berandu zatoz» esan zion fraideak; baina ez zen erantzuna etsipengarria izan. Durangoko Bernaola apezak Artzadunen *Doctrina* eman zion (2. argitarapena) eta geroxeago lortu zuen 1731.eko lehena Lebarioko baserri batetan. Azkueri idazten dio 1906an: «Kapanaga bat aurkitu dut». Vinsonek honako hau esaten zuen 1907an: «(Urkixoren) euskal liburuen sorta jada hain oso eta ederra ... ». Ez zen laudorio txikia bibliografo

harengandik jasotzeko.

Etxepare eta Leizarragaren liburuen atzetik zebilen Urkixo. Lehena ez zuen inoiz lortu, baina Pariseko Bibliothèque Nationalean zegoen aletik egin zuen faksimila, RIEV-en argitaratzeko. Leizarragaren liburuak ez zeuzkan 1911n Schuchardti aitortzen zionez, baina lortu zituen gero. Urte berean diosku Voltaire-ren *Trésor* erosi zuela, eta urte berean aurkitu zuen *Gero* bat Orreagako komentuan eta Paben erosi zuen beste bat. Baina hauetariko bat saldu egin zuen RIEV-en egin zuen argitarapenaren klitxeak ordaintzeko; Aranbilagaren *Imitacionea* Bermeon lortu zuen baserritar batengandik Londresetik espresuki horretarako

15



BIBLIOTEKA
KATALOGOA
Egin berria da «Urkixo»
Liburutegiko katalogoa:
bertan ikus daiteke
nolako altxorra utzi
zigun Urkixo liburuzale
porrokatu hark.



POLITIKAN, KARLISTA

Politikan, karlista izan zen Julio Urkixo. Harreman zuzena izan zuen Karlos VII. arekin (1848-1909). 1870.ean hartu zuen zuzenean karlismoaren gidaritza: Beratik muga pasa eta 1876rarte eutsi zion gerrari. 1900ean, oraindik, altxamendu bat sustatu zuen (Badalona) Urkixok bidaiak ere egin zituen Karlos Erregegaiarekin.

ekarritako kataloxaren truke. Parisen, Londresen, Venezian, Vienan eta beste hiriburuetan hainbat liburu erosi zituen, denetariakoak. Inkunablerik ez da agertzen Urkixoren liburutegian, baina 1548.etik 1799a arte 200 euskal liburu daude, gehien bat iparraldeko egileenak.

Espainiako gerra hasi zenerako Donostian zegoen Urkixoren liburutegia eta inork hondamenik edo lapurretarik egin ez zezan, bahitu egin zuen Gipuzkoako Komisarioak. Han zeuden Manterola, Stempf, Canovas del Castillo, Dodgson eta abarrei erositako liburutegiak. Han zegoen gure erudizioaren «Sancta sanctorum»-a 1951n Gipuzkoako Diputazioak Bizenta Olazabal alargunari 1.400.000 pezetatan erosi ziona, probintziako jauregiaren gela berezi batean jarri zena. Gizon bakar batek lor zezakeen altxor sinestezina.

Urkixo euskaltzaina

Julioren anaia zen Adolfo-Gabriel Urkixok, Bizkaiko Diputazioaren buru zelarik, Euskal Akademia sortzeko proposamena aurkeztu zuen Bilbon, beste hiru diputazioen ordezkariekin bilduta zegoelarik, 1906.eko apirilaren 25ean. RIEV aldizkarian ikus daiteke proposamena (1907). Baina Arabako Diputazioak uko egin zuenez, ez zuen aurrerapenik izan proiektuak. *Cercle d'Etudes Euskariennes* delakoak, iparraldeko euskalariak Baionan sortua eta euskararen Akademiaren antzekoak, eraginkortasun handia izan zuen bizitza laburra izan arren. Lehen bilkura 1911.eko azaroaren 9an eratu zen eta gero ia-ia hilero egiten jarraitu zuten 1913.eko azaroaren 13a arte.


Lehen bileran Julio Urkixo izendatu zuten buru, Georges Lacombe buruorde eta Henri Gavel idazkari. Lehen hegoaldean aurrera-pausurik eman ez zuen proiektua berriz aurkeztua izan zen Eusko Ikaskuntzak 1918an Oñatin antolatu zuen Biltzarrean. Eta oraingoan bai denen onarpena lortu zuen *Euskaltzaindiak*, eta lehen lau euskaltzainak irailaren 5ean izan ziren izendatuak: Azkue, Kanpion, Urkixo eta Eleizalde. Hurrengo urtean, 1919.eko urriaren 7an liburuzain kargua eman zioten Urkixori eta Iker Sailburu izendatua izan zen 1920.eko urtarrilaren 8an, liburuzain kargua Lacombek hartu zuelarik. Bestalde, Eusko Ikaskuntza

erakundean lehen buruordea zen Urkixo, 1930ean kargua utzi arte.

Euskaltzaindiaren ezaugarria, *Ekin eta jarrai* izan zen Urkixorena ere gaztedanik heriotza arte, etengabeko lana zeraman eskuartean beti eta. Euskaltzaindiaren bileretan ia beti agertzen zen eta «La Cava» etxetik Azkuerekin zeukan adiskidetasuna — biak ziren izpirituz bikiak, Mitxelenaren esanetan— gehitu egin zen behar bada biak euskararen alde instituzio batean elkarlanean hasi zirenetik. Madrilen 1926.eko azaroaren 28an emandako dekretu batek euskararen aldetik Espainiako Erret Akademian bi ordezkari izendatzea proposatzen zuen, eta bi horiek Azkue eta Urkixo izan ziren. Azken honek 1929.eko azaroaren 24ean egin zuen sarrera hitzaldia.

17

Euskaldun berria zen Urkixo, baina hizkuntza ondo menperatzen zuena. Euskaltzain izendatu orduko argitaratu zituen lanak ikustea aski da hori frogatzeko. Arrasate, Bergara eta Aramaioko euskara landu nahi zuela esaten zion Schuchardti 1911n. Orozkokoa ondo ezagutzen zuela esaten zion orduan. Donostian zituen hiru neskameak euskaldunak ziren: Aramaio, Billabona eta Urrizakoak, beraz, hiru euskalki desberdinetakoak, Urkixoren euskara aberasteko hainakoak.



OÑATIKO BILTZARREAN (1918)
Oñatiko Biltzarrean, hizkuntzaren arazoaz berezikiago lan egin zutenen artean, bi gizon elkar-osagarri gogora ditzakegu: K. Eleizalde, batez ere hizkuntzaren status-ari begiratu ziona, eta ikerlan filologikoez ihardun zuen J. Urkixo.



EUSKALTZAINDIAN (1918)
Euskaltzaindia eratzean, Iker Sailburu izendatu zuten Urkixo, ikerkuntza baitzen beronen gogoa eta dohaina. Bileretara zintzo bildu ohi zen. Argazkian, ezker-eskuin (1927): eserita, Eguzkitza, B. Etxegarai, Azkue eta Lacombe; zutik, Orixe, Landerretxe, Altube, Urkixo eta Olabide.

Urkixo 1950.eko urriaren 30ean hil zenean Luis Villasantek bete zuen haren aulkia eta hutsunea.

Tituluak. Omenaldiak

Lehengo orrialdeetan aipatu ditugu Urkixok izan zituen titulu eta karguetatik batzuk. Gaztaroan idatzi zuen lehen liburuagatik, San


Petersburgeko Volapük Akademiaren kidea izendatua izan zen. Eta politika munduan lortu zuen ospeagatik, 1908an Medjiedieh Ordenako eta 1923an karlisten «Legitimidad Proscrita» Ordenako zalduna hautatua izan zen. Baina gehiago maite zituen, beharbada, kultura arloan lortu zituen tituluak eta karguak, hala nola: Historiako Erret Akademiaren kidea

(1909), Pariseko Hizkuntzalaritza Elkartearen kidea, Bordeleko Akademiaren kidea, San Telmo Erakustokiko kidea, Gipuzkoako Monumentuen Batzordeko Burua, Bonn-eko Unibertsitatean «Honoris Causa» Doktorea (1924), Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko Burua (1943). Gipuzkoako Diputazioak 1942.eko otsailaren 8an Semeordekotzat hartu zuen, eta Bizkaikoak, urte bereko martxoan Ohorezko Seme izendatu zuen.

Omenaldia eskaini behar ziotela erabaki zuen Euskal Herriko Adiskideen Elkartek 1947an, Azkoitiko Insausti jauregian eratu zena 1949.eko ekainaren 23an. Argitaratu berria zen, aurreko maiatzean, omenaldi liburuetakoa lehen tomoa, bigarrena 1949.eko urrian kaleratua izan zelarik eta 1951.eko apirilean hirugarrena. Alfonso X.a Jakintsuaren Gurutzea eman zioten 1949an.

Urkixo hil ondoren, bere izeneko Euskal Filologiaren Mintegia sortzea proposatu zen 1952.eko abenduaren 13an, hurrengo urteko urtarrilaren 29an sortu zena eta ordutik hona Urtekaria (1967) eta hainbat argitarapen eman dizkiguna. Mintegi honek antolatu zuen Donostian omenaldi bat 1971n, Urkixoren jaiotzako mendeurrena ospatzeko,


Agud, Tovar, Villasante, Mitxelena, Lekuona, Orixe eta Irizar jaunen hitzaldiekin apaindua, 1972an Bizkaiko Diputazioak, Mitxelena, Haritschelhar eta Ignacio Urkixo jaunen hitzaldiekin eratu zion bezalako. Euskaltzaindiak 1969.eko uztailaren 10ean omenaldi-bilera eskaini zion erakundearen sortzaile izan zen Urkixori, 1971.eko *Euskera* agerkarian hitzaldiak argitaratuz.



ASJU ALDIZKARIA (1967)
Urkixoren inguruan bildutako euskalarien lanari, belaunaldi berrietan ere segida emateko, «J. Urkixo Mintegia» sortu zuen Gipuzkoako Aldundiak (1953): beronen aldizkaria da «urtekaria» (Anuario del Seminario «Julio Urquijo» deitua).

Baina euskal kulturaren eta bereziki euskararen erraldoi honekin dugun zorra ez diogu inoiz behar den neurrian ordainduko. Txikia eta ahula bada ere, izan bedi liburuxka hau gomutagarri bat.

20



MEDEURENA (1971)
 Urkixoren jaiotzaren mende-muga zetorrela eta, Euskaltzaindiak omenaldi berezia eskaini zion Urkixori (1969), gero hitzaldiak *Euskera* aldizkarian argitaratuz.

